

Bizkaiko erresidentziak  
borrokan!  
Langile borrokatik  
ahalduntze feministara

NAHIA FERNÁNDEZ VICARIO

# **Bizkaiko erresidentziak borrokan!**

## **Langile borrokatik ahalduzte feministara**

- 3 SARRERA
- 6 BIZKAIKO ERRESIDENTZIAK BORROKAN! GREBALARIEN AHOTSAK: ELKARRIZKETEN ANALISIA ULERTZEKO ZENBAIT GAKO
- 7 GREBALARIEN LEKUKOTZA
- 23 ONDORIOAK
- 29 BIBLIOGRAFIA



**Dokumentuak 42**

*2018ko abendua*

[www.mrafundazioa.eus](http://www.mrafundazioa.eus)

@mrafundazioa

---

# Bizkaiko erresidentziak borrokan! Langile borrokatik ahalduentze feministara<sup>1</sup>

Nahia Fernández Vicario<sup>2</sup>

## SARRERA

Azken hamarkadetan, neoliberalismoaren hedatze bortitza ari gara bizitzen, eta haren eragina gure inguru hurbilenean ere jasaten ari gara. Neoliberalismoa, ordea, nazioarteko logika eta estrategia jakin bati erantzuten dion sistema politiko eta ekonomikoa da, zeinari 1989. urtean eman zitzaion izena. Modu honetan, 1989ko Washington-eko Kontsentsuan, “Merkatu gehiago eta Estatu gutxiago” formula aldarrikatu egin zen nazioartean, honako ezaugarriak zekartzalarik formula neoliberal honek: zerbitzu publikoen pribatizazio prozesua eta lan merkatuaren eta baldintzen fexibilizazioa, enpresak onuratzeko helburuarekin (Alcañiz eta Monteiro, 2016).

Joera hau 2007an Estatu Batuetan sortutako eta ondoren Europar Batasunera eta munduko beste hainbat lurraldetara zabaldutako krisi ekonomikoarekin indartu egin zen. Europar Batasuneko hegoaldeko edo mediterraneoko herrialdeak, Italia, Grezia, Portugal eta Espainia, hain zuzen ere, kaltetuenak izan dira zentzu honetan. Grezia eta Portugalen kasuan, erreskatatuak izan diren heinean, Troikak inposatutako neurri neoliberalak ezarri dituzte trukean lurraldeotako gobernuek. Espainiar Estatuaren kasuan, erreskatea bankaren sektorearen gain soilik gauzatu zen arren, Troikak ezarritako austeritate neurriak aurrera eraman ziren modu berean (Mercedes Alcañiz eta Rosa Monteiro, 2016).

Espainiar Estatuko ongizate sistema eredia, gainontzeko lurralde mediterraneotan izan ohi den moduan, eredu familista da. Eredu familistak

---

<sup>1</sup> Lan hau 2017/2018 ikasturtean *Ikasketa Feministak eta Generokoak* Unibertsitate Masterraren (EHU/UPV) baitan gauzaturiko “Bizkaiko Erresidentziak Borrokan! Langile borrokatik ahalduentze feministara” Master Amaierako Lanaren zati bat da. Lana bere osotasunean EHUren ADDI artxibo digitalean eskuragarri dago.

<sup>2</sup> Gizarte langilea, egun EHUko *Ikasketa Feministak eta Generokoak* arloko doktorego programan tesia egiten ari da.

honako ezaugarriak ditu: sexuaren araberako lanaren banaketa nabarmena, gastu publiko urria, emakumeen parte-hartze urria lan merkatuan eta Eliza Katolikoaren eragina (Esping-Andersen eta Pailer, 2010; Silva, 2002; Tobío 2015, hemendik aterata: Mercedes Alcañiz eta Rosa Monteiro, 2016). Agerikoa da, beraz, Ongizate Estatu eredu honek ez duela gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna ahalbidetzen. Bada, azken urteetan Espainiar Estatuak ezarritako austeritate neurriek egoera hau larriago bilakatu dute. Zerbitzu publikoen merkantilizazioak, esaterako, bizitzarako ezinbestekoak diren zerbitzuak prekarizatzea edota publikoki eskaintzeari uztea dakar; besteak beste zaintzarekin zerikusia duten lanak. Jakinaenez, estatuak utzitako hutsune hauek emakumeek betetzen dituzte oro har, lanaren sexuaren araberako banaketa dela eta. Zerbitzu hauek emakumeen eskuetara pasatzen dira, merkatutik at ordaindu gabeko lanaren bidez zein lan merkatuaren baitan baldintza geroz eta prekarioagoetan aurrera eramaten direlarik.

Prekarietatea, pertsona jakin batek bizitzeko behar dituen oinarriko baliabideak izateko ziurgabetasuna sortzen duen baldintza material eta sinboliko sorta da (Precarias a la Deriva, 2004). Prekarietatea geroz eta hedatuago dago Europan zehar zein Estatu Espainiarrean, estrategia eta politikagintza neoliberalak prekarietatea areagotzea baitakar. Prekarietatearen fenomenoak, aitzitik, ez du modu berean eragiten lurralde bereko pertsonengan, baizik eta zaurgarritasun gehien pairatzen duten kolektiboen eragiten du bereziki: langile klasea, etorkinak, gazteak eta emakumeak, besteak beste (Tomeu Sales, 2016).

Prekarietatearen feminizazioak, aipaturiko fenomeno honi erantzuten dio, hain zuzen ere. Prekarietateak emakume aurpegia du: lan baldintza kaxkarragoak, enplegu malguagoak, ziurgabetasun handiagoa, lanaldi partzialak, erreprodukzio lana eta enplegua kontziliatu beharra edota soldata arrakala dira, beste askoren artean, emakumeen lan eta bizi baldintzak prekarizatzen dituzten egoerak.

Prekarietatearen feminizazioaren oinarrian, sexuaren araberako lanaren banaketan dago. Egun bizi dugun neoliberalismoaren olatuak, gainera, sexuaren araberako lanaren banaketa eta honek dakartzan ezberdintasun sozialak areagotu ditu. Izan ere, sexu segregazioaz gain, fenomeno honek ere lan ezberdinen arteko ierarkia bat sortzen du, “gizonezkoenak” kontsideratuak diren lanak balioan jarriz, “emakumezkoen” lanarekin alde-ratuta. Modu honetan, lan merkatuaren baitan, sektore feminizatuak sarri prekarioenak izaten dira, lan-baldintzak okerragoak izaten baitituzte oro har gizonezkoen baldintzekin alderatuz, nahiz eta azken hauen artean ere

---

---

prekariatatea geroz eta zabalagoa den. Emakumeek betetzen dituzten enpleguen ehuneko gehiengoa zerbitzuen sektorean pilotzen da, eta arlo feminizatuen hitzarmenak begiratzea besterik ez dago langileen baldintza kaxkarretaz jabetzeko.

Egoera honi sindikalismoaren ikuspegia gehitu behar diogu. Erakunde sindikalen eta emakumeen arteko harremana historikoki harreman gatazkatsua izan da. Hasiara batetik gune maskulinizatuak izan dira sindikatuak, eta emakumeen presentzia urria izan da. Industrializazio garaia hasieran, sindikatu gehienetan emakumeek parte-hartzeko debekua zuten, eta debekua ezarria ez zuten erakundeetan ere ierarkia androzentriko eta funtzioen banaketa sakonki sexista eman zen. Denborarekin egoera hoberruntz joan den arren, sindikatuak gune maskulinizatuak izaten jarraitzen dute egun ere, eta sindikalistaren irudi sinbolikoak industrializazio garaiko berberak izaten jarraitzen du: gizon zuria, heldua, heterosexuala, fabrika lan egiten duena eta familia-burua (*breadwinner* eredua). Sinbologia honek, langile klasearen gehiengo bat sindikalistaren irudiarekin identifikatua ez sentitzea dakar, gehiengo horren artean, emakumeak.

Egun, beraz, eskubide galera eta prekariatatearen igoera bat bizitzen ari garen garai honetan, sindikatuenganako interes falta nabaria da jendartearen zati handi batengan. Identifikazio faltaz gain, nabarmendu nahi nuke zenbait sindikatu azken urteetan hartu duten norabidea eta horrek sortu duen langile klasearen mesfidantza. Izan ere, zenbait sindikatu instituzio burokratikoak bereganatuak izan dira eta konfrontazio sindikala alde batera uzteko hautua egin dute, gobernu neoliberalen konplize izatera heldu direlarik. Honek, ezinbestean, langile klasearen fidagaiztasuna piztu du sindikatu guztiengan.

Egoera honelakoa izanda ere, azken urte eta hilabetetan, sindikalismoaren eredu hegemoniko eta tradizionaletik aldentzen diren zenbait aldarrikapen laboral azaleratu dira gure inguru hurbilean. Izan ere, eredu tradizionaletik aldentzen diren eta sektore prekarioenetan ematen ari diren lan gatazkak azaleratzen ari dira azkenaldian. Honen adibide lirerateke Estatu mailako "Las Kellys" kolektiboaren borroka, edota lan honen bidez aztertuko dugun Bizkaiko Erresidentzietako langileen greba, beste batzuen artean. Plazaratzen ari diren borroka hauek feminizatuak izan ohi dira, langile eta sindikalista subjektu tradizionaletik aldentzen den subjektua, alegia.

Guztira 378 greba egun eta 2 urte iraun dituen Bizkaiko Erresidentzien Borrokan, gainera, era nabarmenean ikusi ahal izan dut nola diskurtso feminista garatzen joan den prozesuan zehar, langileen zein horien euska-

rri izan den ELA sindikatuaren baitan. Hartutako kutsu feminista hau, aldarrikapen, eslogan, elkarrizketa, edota ahoz-ahozko jarreraren bidez agerian geratu da, ahalduntze feminista prozesu zantzua hartu diodalarik bila-kaerari.

Bizkaiko Erresidentzietako langileen borroka, beraz, hainbat arrazoiengatik hartu dut aztergai:

Gatazka honen bidez, egungo sektore feminizatueta bizi den prekaritatea agerian geratu da, kolektiboaren lan baldintzek erakusten duten moduan. Gainera, zerbitzu publiko izan beharko lukeen baina azpikontratua dagoen sektorea dugu, eredu honek dakarren lan baldintzen galera-ekin. Modu honetan, bizi dugun sistemaren joera neoliberalak islaturik geratu da: bizitarako behar-beharrezkoak diren zaintza zerbitzuen pribatizazio eta merkantilizazioaren ereduak, alegia. Azken batean, bizitza eta kapitalaren arteko gatazka agerian geratu da.

Beste alde batetik, galdera nagusi hau jorratu nahi nuke lan honen bidez: Bizkaiko Erresidentzietako langileek gauzaturiko greban, ahalduntze feministarik egon al da parte hartu duten emakumeen artean?

Oraindik ere maskulinizatuta dagoen sindikalismo ereduaren baitan prozesu feminista bat gertatu izana interesgarria eta berritzailea izan daitekeelakoan nago, batez ere eredu eraginkorragoen bilaketan eraberritze sindikala hizpide duten erakundeen ikuspegitik. Arrazoi honegatik, lan honen bidez greban zehar emandako prozesu eta ibilbidearen nondik norakoak izango ditut ikergai, ahalduntze feminista prozesua gauzatu den ala ez aztertzeko helburuarekin, eta hala izanez gero, prozesu horren nolakotasuna ikertzeko xedearekin.

Bizkaiko Erresidentzietako Borroka honen ereduak, ondoren etorriko diren borroka sindikal feminizatueta eragin positiboa izan dezake. Esperientzia hau jaso eta aztertzearen azken arrazoi bat, beraz, prozesu honen irakaspen eta ekarpenak biltzea da, sindikalismoa feministotik eraikitzeke lanean dihardutenentzat ere ekarpen baliagarria izango dela-koan.

## **BIZKAIKO ERRESIDENTZIAK BORROKAN! GREBALARIEN AHOTSAK: ELKARRIZKETEN ANALISIA ULERTZEKO ZENBAIT GAKO**

Ondoren Bizkaiko Erresidentzietako borroka aztertuko dugu, grebalarien esperientzia eta kontakizunak hartuz abiapuntu gisa. Testigantzak jasotzeko, sakoneko elkarrizketak gauzatu dira zortzi grebalarirekin, guztiak, ELA sindikatuko kideak (ordezkariak, liberatuak edo afiliatuak).

---

Prozesuaren analisia hiru momentu kronologikotan ezberdinu egin da: Abiapuntua, Greba, eta Emaizak. Abiapuntuan zein Greban zehar bizitako egoera aztertzeko, hiru aspektu izan dira kontuan: Baliabide ekonomikoak, Giza baliabideak eta Baliabide soziopolitikoak. Emaizten atala aztertu ahal izateko, aitzitik, ahalduntze feminista prozesuetan ematen diren lau aspektuen analisia gauzatuko da: Edukitzea, Jakitea eta egiten jakitea, Nahi izatea eta Eragiteko gaitasuna (Sophie Charlier eta Lisette Caubergs, 2007).

Ondoren ikusiko den moduan, adierazle hauen edukia bi mailatan ageri da: indibiduala eta kolektiboa. Izan ere, ahalduntze prozesuak bi dimentsio horietan ematen dira, sarri dimentsioak nahastu egiten direlarik era berean.

Adierazle hauek gauzatzeko, “El proceso de empoderamiento de las mujeres” gida metodologikoa (Sophie Charlier eta Lisette Caubergs, 2007) hartu dut oinarri, eta bertan ezarritako aldagaiak testuingurura moldatu eta egokitu egin ditut. Izan ere, gida metodologiakoan ezartzen den moduan, ez dago formula bakarria ahalduntzea neurtzeko edota prozesuak sistematzitzeko, eta adierazleak egokitu egin behar dira testuinguru bakoitzera.

## GREBALARIEN LEKUKOTZA

### *Abiapuntuko egoera*

#### *Baliabide ekonomikoak*

Hasiera batean, elkarrizketatuen hitzetan, gatazka lan baldintza materialak hobetzeko helburuarekin jarri zen martxan, bosgarren hitzarmena lortzeko, alegia. Euren hastapenetako egoeraz hausnartzerako garaian, grebalaria zaharren egoitzen azpikontratazio sistemaren inguruan mintzo dira:

*Sektore honetan gauza inoiz ez da erraza izan. 98az ari naiz; orduan oso egoitza gutxi zegoen. Aspaldiko eraikintzarra egin zen. Enpresak konturatzen hasi ziren hemen Aldundiak adineko pertsona bakoitzeko diru kopuru handiagoa ematen zuela estatuko beste leku batzutan baino, eta hori negozio ona zela. Orduan hasi ziren zahar-etxeak perretxikoen moduan sortzen. (...) Sektorea instituzioek hain ondo ordaintzen dutenez, zuk plaza gutxi batzuk izanagatik ere etekinak lortzen dituzu; 15-20 adineko edukita diru-sarrera oso handiak izango ziren, langileak ia doakoak izanik, eta oso urriak: 20 lagunentzako ia ez zen pertsonalik behar, eta irabaziak itzelak ziren. (Ezkerraldeko ordezkaria 1)*

Modu berean, azpikontratazioaren ereduak sektore publiko eta pribatuan lan egiten duten beharginen arteko lan baldintzen desoreka mahai gainean jarri zuten elkarrizketatuek:

*Erakunde publikoetako lan bera egiten genuelarik ez genuen merezi baldintza okerragoetan egoterik. Lan bera eginez, langile berak izanik, pertsona berdinei arreta ematen genielarik, gainera eurek bidaltzen zituzten zaharrak zirelarik, eta beren enpresetan, Aldundiaren ardurapean, askoz gehiago kobratzen dela -%40 edo 60 gehiago-, langile kopuru bikoitzarekin, guk ez genuen ulertzen zergatik gutxietsi behar gintuzten horrela. (Ezkerraldeko ordezkaria 1)*

Hala ere, behin gatazka jendarteratuta, langileen lan baldintzen dimentsioaz haratago jo zuen diskurtsoak, eta borrokak beste kutsu bat hartu zuen: beharginen baldintzez gain, erabiltzaileen egoera jarri zen eztabaidaren erdigunean. Honela deskribatu du eskumaldeako grebalarari honek prozesua:

*Batez ere gatazka hasi zen lan-hitzarmen bat lortzeko (...) genuena hobetze aldera. Gertatzen dena da kalera irtenda (...) beste gauza batzuk ere eskatzen hasten zarela; ez duzu soilik soldata hobea eskatzen. Egoiliarrentzat ere kalitatea eskatzen duzu. Jendea guri kasu egiten hasi zen eta zahar-etxeetako arazoaz kontzientzia hartzen. Hor borroka kutsu soziala hartzen hasi zen. Ratioen auzia jarri genuen mahai gainean, langile gutxiegi zegoela, ez ginea iristen... Orduan hasi ginen bazterrak nahasten eta jendeak babesa eman zigun. (Eskumaldeko ordezkaria 2)*

Modu honetan, ratioen arazoa jarri zen mahai gainean. Izan ere, ratioak hain dira handiak non egoitzetako langileak erabiltzaileak modu egokian zaintzeko denbora ez izateaz kexu diren:

*Gu pertsonekin ari gara lanean, ez gauzekin. Eta batzutan, sartzen dizuten presioarekin, badirudi eurentzat argi dagoela gu zenbaki hutsak garela, baita haiek ere. Eta hori oso tristea da, izan ere, bai baitakigu hau negozio bat dela, baina 20 irabazteko ez duzu 50 gastatu behar. Haien lepotik ezin dituzu etekinak puztu (...) Denbora eskaintzea merezi duten pertsonekin ari zara beharreen; duintasuna zor zaie. Beren bizitzako azken urteak dira; pentsa ezazu apur bat zuk zer nolako tratua nahiko zenukeen (...) Errespetuz, gizabidez eta behar besteko denbora eskainiz. (Eskumaldeko ordezkaria 1)*

Honekin batera, grebalariek oso ezaguna ez den datu bat eman zuten: erresidentzien sektorean, ez dira soilik adineko pertsonak tratatzen. Elkarrizketatuek dioten bezala, modu batean edo bestean gizarte bazterketa egoeran dauden profil ezberdinetako pertsonen ere arreta eskaintzen diete, hala nola drogomenpekotasun arazoak dituzten pertsonen, ezgaitasunak pairatzen dituen jendeari, edota gaixotasun psikiatrikoak dituzten



pertsonei, besteak beste. Hauek, gainera, adin guztietako pertsonak izaten dira, gazte zein heldu:

*Era guztietako pertsonekin ari zara lanean... hau da, uste izaten dugu zahar-  
etxeetan adinekoak bakarrik daudela. Ezta pentsatu ere! 80 urtekoak badira,  
baina baita 50, 40 eta are gazteagoak ere! Euren arteko bizikidetzan oso des-  
berdina da. Langile zaren aldetik tratatu desberdina eskatzen du egoera  
bakoitzak; haiek hain adin desberdina dutelarik, zure lan egiteko modua ez  
da berdina. Ez da gauza bera 70 edo 80 urteko pertsona bati arreta ematea  
edo 40-50eko bati (zu zeu izan zaitezke). (Ezkerraldeako ordezkaria 1)*

*Istripuak, gaixotasun degeneratiboak... (Ezkerraldeako ordezkaria 2)*

*Soziosanitarioak eskaintzeko ituna duten enpresen kasuan, esaterako gure-  
an, Aspaldiko... drogek eragindako eskizofrenia duen jendea dator, edota  
kalean bizi izan dena... beste tratatu bat eskatzen duten plazak dira. Egoiliar  
batzuk metadona hartzen dute... Horregatik, jende honek ezin du egoitza  
batean egon, denak nahasita! (Ezkerraldeako ordezkaria 1)*

*Bestelako zentro bat sortu ordez hemen topatu dute jende era hori sartzeko  
zulo bat. (Ezkerraldeako ordezkaria 4)*

Egoera honek lan karga gehigarria suposatzen du erresidentzietako langi-  
leentzat, orokorrean ez baitaude espezializaturik profil aniztasun hain  
zabala barnebiltzen duen erabiltzaile taldeari arreta egokia emateko. Gai  
honen inguruan ere honako hausnarketa plazaratu genezake, erabiltzaile-  
en ikuspuntutik: gizarte bazterketa pairatzen duen jende profil hain ezber-  
dinak zentru berean tratatzeak zentzurik al du? Honetaz gain, behar modu-  
ko arreta jasotzen al dute erabiltzaileok?

#### *Giza baliabideak*

Zahar egoitzetako langileek hasiera batean bizi zuten prekarietate egoeraz  
zuten kontzientziazio mailaren inguruan galdetzerakoan, zenbait erresi-  
dentzietan bosgarren hitzarmenaren gatazka baino lehenago egindako  
mugimenduak aipatu zituzten, beraz kontzientziazioaren esnatze hori  
aurreko urteetan kokatzen dute:

*Izan ere, aspaldidanik datorren lana da, aurretik datorrena. (Ezkerraldeako  
ordezkaria 2)*

*2000-2001 aldera dagoeneko mugitzen hasi ginen; baziren elkarrizketak hit-  
zarmen probintzial bat bultzatzeko, baina hura ez zen aurrera ateratzen... Hasi  
zen igartzen ez genuela hitzarmen estatala nahi. Mugitzen hasiak ginen: 2000  
eta 2002 bitartean hasi zen giroa berotzen... Ez genuen hori nahi, hemendik  
bertatik lan egiten hasi nahi genuen. (Ezkerraldeako ordezkaria 1)*

Hasiera batean lankideen artean zegoen kontzientziazio feminista mailaren inguruan galdetuta, modu ezberdinetan erantzun zuten elkarrizketatuek. Izan ere, nahiz eta batzuek hasiera batetik beren burua feministatzat izan, beste batzuek ez dute feminismoa irizpide izan, borroka mugitu duena arrazoi materialak izan direla azpimarratuz:

*Kalean geunden asko, baina ez borroka feminista zelako, baizik egunero pairatzen genuen egoeragatik; kokoteraino geunden, eta honen alde feminista kanpotik areago ikusi da guk barrutik baino... (Ezkerraldeako ordezkaria 4)*

*Esaterako, nik borroka feministaren kontzientzia handia nuen; horregatik, lehen unetik banekien -baita hala aldarrikatu ere- hau borroka feminista zela, eta gure arazoak ezagutzera emateko aukera genuela. Bada jendea feminista dena eta ez da konturatu, ala? Izan ere, batzuk esaten dute ez direla feministak, baina eurekin berba egitean... "Hara, ba, banaiz feminista!" Esaten dute. Asko dira feministak, baina ez dakite. Neu bai, borroka feministarekin oso kontzientziatuta nago. (Ezkerraldeako ordezkaria 2)*

#### *Baliabide soziopolitikoak*

Abiapuntuan zentruetan zegoen sindikalizazio mailaz galdetzerakoan, egoera ezberdinak aurkitu ditugu. Lantoki batzuetan jende gehiago zegoen afiliatuta sindikatuetara, beste batzuetan gutxiago. Ondorengo elkarrizketatua, 24 urteko langilea da, eta afiliatzeko erabakiaren inguruan galdetu diot:

*Bai, afiliatua nago; greba hasi zenean afiliatu nintzen. Lehenago ez nengoen afiliatua. Nire lehen beharra izan zen. Praktikatan hasi nintzen eta bi orduetarako hartu ninduten. Gero, finko egin nindutenean afiliatu egin nintzen. Gatazka behar zela ulertu nuen: nire lankideei esker nintzen ni finkoa, borroka egin zutelako plantillaren %80 finkoa izan zedin. (Bilboko afiliatua 1)*

Badirudi, beraz, elkarrizketatuaren lantokian lan sindikala egin izanak eta lan horrek fruitu eman izateak afiliatzeko pausua ematea eragin duela gaztearengan.

Afiliazioaz haratago, elkarrizketatu ditudan grebalarien lan zentru guztietan hauteskunde sindikalak egin izan dira, eta ondorioz delegatuak dituzte. Hala ere, sindikatuarekin harremanak izateagatik pairatu izan dituzten egoerak azaleratu dituzte parte-hartzaileek:

*Hastapenak ez ziren errazak izan, gure kasuan enpresak eragozpen ugari jarri baitzuen. Sindikatuari "zabortegia" esaten zioten; hasieratik egon ginenean delegatuek banan bana dimititu egin zuten; ni bakarrik geratu nintzen, eta kaleratzeko mehatxua egiten zidaten "zabortegia" alde batera utz nezan. Jazarpen latza egin zidan enpresak -oraindik ere ondorioak pairaten ditut-; bai, oso zaila izan zen, baina tira, piskanaka beste pertsona batzuk ere sar-*

*tzen hasi ziren, eta gaur arte (...) ELAko delegatu izatea ez da erraza, hauteskundeak datozenean (...) Azken hauteskundeetan ordezkapenak egiten ari ziren 17 edo 18 pertsona baziren, agian ELAri botoa emateko prest, eta kaleratu egin zituzten. Egundo ez dugu erraztasunik izan. (Ezkerraldeako ordezkaria 2)*

Ikus dezakegu honela, nola sindikalki antolatzeko hautua hartzen duten pertsonen traba handiak izan ohi dituzten euren funtzioa aurrera eramateko, ahalduzaren aurkako efektua izan dezakelarik egoera honek, emozionalki suposatzen duen higaduragatik.

## **Greba**

### *Baliabide ekonomikoak*

Zaharren egoitzetako langileen kolektiboa, oro har, langileria prekarioa da, euren lan baldintzek egoera hori ahalbidetzen dutelarik. Hau honela izanda, elkarrizketatuek greba egin ahal izateko “Erresistentzia Kutxa” ezinbestekoa izan dela diote; ELA sindikatuak duen greba kasuetarako mekanismo solidarioa, alegia:

*Noski, greba-kutxak berebiziko garrantzia du. Neuk ere laguntza hori gabe ezin izango nuen hainbeste egunez eutsi; hori oso argi ikusi dut. (Eskumaldeako ordezkaria 1)*

Erresistentzia kutxaz gain, greban zehar aurrera egin ahal izateko sindikatuak eskainitako beste zenbait baliabide material ere goraiatu dituzte elkarrizketatuek:

*(...) Gero, ELAren moduko sindikatu handi baten babes eta indarra. Behar zen guztia jarri du gure eskura: pankartak, furgonetak, pegatinak, txapak... Bitarteko mordo bat, eta horri esker sozializatu ahal izan dugu gatazka; hor dago ere greba-kutxa... funtsezko tresna honi aurre egiteko. (Bilboko liberatua 2)*

### *Giza baliabideak*

Greban parte hartzeko hautua egiteko erabakiaren inguruan mintzatu gara elkarrizketetan. Ordezkari sindikala izanda, enpresarien mendekuaren aurrean babes juridikoa gainontzekoena baino handiagoa da. Zentzu honetan, ordezkari sindikala ez den elkarrizketatuari greba egiteko hautuari buruz galdetu diot:

*Ni greba egiteko beldur nintzen, neure burua bakarrik ikusten nuelako. Baina hain justu finko egin gintuzten bi lagun geunden, eta hitz egiten hasi ginen. Bion artean esan genuen: egingo al dugu? Eta indarra hartuta, elkarrizkari*

*sa emanaz, aurrera egin genuen. (...) Irailean ekin genion grebari nire lankideak eta nik. (Bilboko afiliatua 1)*

Grebalari honen testigantzatik, aislamendua haustearen garrantzia atera dezakegu, beldurak gainditzeko eta antolaketara pausu egiteko estrategia gisa.

Grebek dakarten zailtasun agerikoena, lanuzteek eragindako soldata galera dugu, baina errealitatean beste zenbait faktore ere gailentzen dira. Greban egoteak, lanuzteek dirauten bitartean mobilizazio eta ekintza ezberdinetan parte hartzea dakar, hala nola manifestazioetan, kontzentrazioetan edota bileretan parte hartzea. Gatazkaren konponbideari dedikatu beharreko denbora, beraz, asko izaten da. Hirugarren adineko egoitzetan sektorearen gehiengoa emakumez osatua dago, eta jakina denez sexuaren araberrako lanaren banaketaren eraginez emakumeengan dago zaintza eta etxeko lanen zama handiena. Honela, greban zehar seme-alaben edota bestelako zaintza lanaren kudeaketa, elkarrizketetan mahai gainean jarri den gaia izan da, egoera horri aurre egiteko estrategia ezberdinak azaleratu direlarik. Hurrengo elkarrizketatuaren iritziz, zenbaitetan greba eta zaintza lanak uztartzeko ezintasuna gogorra izan da:

*Lehen urte luzean nire alaba ez dut ikusi. Orduan senarra langabezia zegoen, eta berak zaintzen zuen alaba. Niretzat eromena izan da. (...) Alabak esaten zidan: ama, nik ez dut berriro manifestazioetara joan nahi. Senarra lanean hasi zenean nirekin eramaten nuen alaba, ez baita erraza norbaitekin uztea. Edota antolatu behar nituen gutxieneko zerbitzuen karpeta ateratzen nuenean alabak esaten zidan: "Jo, ama, berriro?" Bai baitzekien ez ginela jolasean ibiliko, ez ginela elkarrekin egongo... eta hori horrela da. (Eskumaldeako ordezkaria 2)*

Seme-alabak manifestazio eta ekintza ezberdinetara eramatea joera orokortua izan da grebalarieen artean:

*Gure seme-alabekin mobilizazioetara etorri behar izana... Gure haurrek hau ezagutzea, sei, lau, zortzi urteko umeak... Esloganak guk bezalaxe zekizkiten! (barreak) Banderak hartzen zituzten... (Ezkerraldeako ordezkaria 1)*

*Eta nire umeek etxean oraindik ere jarraitzen dute (...) halako batean entzuten duzu: "¡diputación, solución!" (barreak). (Ezkerraldeako ordezkaria 4)*

Gainera, greban zehar zaintza lanak aurrera eramaten parte hartu duten inguruko pertsonen sarearen garrantzia azpimarratu dute zenbait elkarrizketatuk, persona horiek grebaren parte aktibo izan direla aldarrikatuz:

*Esan nahi dut ere gure borroka, emakume garen aldetik, hor egotea erabaki dugun pertsonak garen aldetik, gure inguruko guztien laguntzarekin izan*

*dela. Hots, niretzat ezinezkoa izango zen egunero hor egotea, edozein ordu-tan, goiz eta arratsalde, gure inguruko norbaitek umeak zaindu izan ez balitu (...) Haur horiek norbaitek zaindu behar ditu...Auzokoek, lagunak, amama-aititek... alegia, hauek ere greban pertsona aktiboak izan dira. Ulertzen al duzu? Gure borroka ezin izango zen hain ederra izan haiek gabe. (Ezkerraldeako ordezkaria 1)*

Greba aurrera eramateko beste zailtasun nagusietako bat, zerbitzu mini-moen gehiegizko aplikazioa izan dela aipatu dute elkarrizketatuek. Izan ere, hasiera batetik egunez %80an eta gauez %100ean ezarri zituen Foru Aldundiak gutxieneko zerbitzuak. ELA sindikatuak neurri kontrako salaketak jarri zituen arren, greba aurrera joan ahala eguneko gutxieneko zerbitzuak %90era igo zituen Aldundiak. Modu honetan grebaren eragina nabarmenki balio gabetu zitekeen arren, mobilizazioetan jende kopurua mantentzeko grebalariek egindako esfortzuak bere fruituak eman zituen, nahiz eta gogorra izan zela aipatzen duten:

*%80arekin hasi zen, eta gauez %100arekin; gaueko txandan ezin izan da greba egin, eguneroko kontua baita gutxieneko zerbitzu moduan lan egitea (eta hau eurek ere aitortu dute). Gauean bi langile daude: nola demontre onartuko duzu greba bat! (...) Aldundiak eskatu zuen -ez patronalak, Aldundiak baizik-, %90eraino gehitu zizkiguten (...) besteok, bada, goizez banago arratsaldez noa, eta arratsaldez banago... Klean hainbeste jende biltzea lortu dugu ahalegin handiak egin ditugulako eta konturatu garelako etengabe egon behar zela, gutxieneko zerbitzuak txarrak izanagatik ere... abusuzkoak izan dira. Eta salatu ditugun bakoitzean galdu egin dugu, behin eta berriz egurtu gaituzte... Hori izan zen kolperik gogorrenetakoa; beldur ginen greba ez ote zen ikusezin bilakatuko. (Bilboko liberatua 2)*

Emozionalki greban zehar gorabehera asko izan dituztela adierazi dute elkarrizketatuek, momentu onak eta txarrak. Horretarako, lankideen arteko babesa ezinbestekoa izan dela ere aipatu dute:

*Negar egin dugu, barre egin dugu, orain honekin, gero beste harekin; hase-rreru ere egin gara inoiz, hurrengo egunean negarrez geunden... denetarik. (Ezkerraldeako ordezkaria 3)*

*Azkenean honek talde guztiarengan du eragina. Eztabaidak pizten dira; gero aurrera jotzen dugu, berriz ere eztabaidatzeko... oso gogorra izan baita. Nork berea zuen. Areago lantokian. Gero beste zentroetako lankideekin hitz egitean konturatzen zara zurean gertatzen dena nonahi gertatzen dela, eta horrek lagundu egiten zaitu. Tira, ez da hain astuna. (...) Kafe-terapia mordoak egin dugu... bai, mordoak. (Eskumaldeako ordezkaria 2)*

*Eskerrak ez ginen biak batera hondoratzen. Bat jausten zenean besteak altxarazten zuen, eta alderantziz. (Eskumaldeako ordezkaria 1)*

Zentzu honetan, liberatua dagoen elkarrizketatuak, ordezkari sindikalen lana goraiatu du, kideen animoak eusteko orduan:

*Nire ustez delegatuok ardura handia izan dugu: gure lankideei eutsi behar genien hondoan jotzen zutenean. Manifestazioa amaituta taldeka biltzen ginean (...), ordezkariak lan hori egiten zuen: "Aupa, neskak, animo!" Desgastea nire ustez bikoitza da, zuk ere sarri pentsatzen baituzu... Halere, nik gatazkak iraun duen artean banekien irabazi egingo genuela; egia da oso luze jotzen ari zela (...) baina kontua zen zenbakiari eustea eta gero eta gehiago erakartzea, jendea ez jaustea. (Bilboko liberatua 2)*

#### *Baliabide soziopolitikoak*

Greban zehar elkarrizketatuek negoziazio kolektiboaren prozesuan zehar modu batean edo bestean parte hartu dutela aipatu egin dute. Elkarrizketatuetako batzuek, negoziazio mahaietan izan dira patronalarekin aurrez aurre, sindikatuko estrukturako kideekin batera, betiere.

Parte hartze mekanismoak ezarri egin dira sindikatuko delegatuen artean: ordezkarien artean txandakatu egin dira ahalik eta pertsona gehien prozesuaren parte izateko eta esperientzia hau bizitzeko:

*Tira, benetan arduradunak zeuden harremanetan zuzenean. Eta uneoro ematen ziguten izandako kontaktu bakoitzaren berri. Baina gero, negoziazio-mahaietan, hitzarmena sinatu arteko bileraren batean ni izan nintzen, beste batzutan beste lankideren bat... Txandakatu egin gara guztiok parte hartu nahi genuelako. Guztiok batera egotea ezinezkoa da, baina piska bat ikusi dugu patronalak nola jokatzeko duen... Izan ditugu ere gure batzarrak, eta uneoro oso informazio zabala izan dugu. (Eskumaldeako ordezkaria 2)*

Beste alde batetik eta elkarrizketatu honek dioen moduan, nahiz eta grebalari guztiak ezin izan diren negoziazio mahaietan egon, prozesuaren parte aktibo izan direla diote, asanblada bidez momentu oro informatuak izan baitira mugimendu bakoitzaz, eta honelako espazioetan eztabaidatu eta hartu baitira erabakiak:

*Haiek bileraren bat zuten aldioro batzar batean elkartzeko ginen denok hark emandakoaren berri jasotzeko. (Eskumaldeako ordezkaria 1)*

*Etengabe azaltzen ziguten zer ari zen gertatzen; gure egoitzako delegatuek azalpenak ematen zituzten, beraz, bai, partaide izan gara. Ez geunden bileran bertan baina gertatzen ari zena azaltzen ziguten, eta bai... (Bilboko afiliatua 1)*

Honelako bileretan parte hartu dutenek, ordea, esperientzia txarra izan dutela diote, patronalaren zein kargu politikoen aldetik mespretxua gailen-

du delarik. Ondorengo grebalariak honela adierazi zuen bere esperientzia negoziazio mahaian:

*Ni nahikoa desmotibatuta irten nintzen. Gero atera eta lankideen babesarekin esaten duzu: "Zer arraiio! Aurrera; atzera, indarrak hartzeko ere ez. Zer nahi duzu, oso sektore zaugarria dugu hau (...) Nork zaintzen du zaintzailea? (...) Nik denbora behar dut jende horri behar bezalako arreta emateko. Zuk hori mahaira eraman eta aurrez-aurre dituzun jaunek ez zaituzte serio hartzen. Lehenengo bileratik irteerakoan susmoa nuen haien ustetan gu lau neskato ginela, eta deiarar batzuk botata nekatuko ginela. Ez daukat ahazteko greba hasi eta hilabete batzutura patronalak proposatu zuen lehenengo igoera 3 eurokoa izan zela, urtean 2 orduko lanaldi murrizketa, eta 2017an berriro hitz egingo genuela... Orduan esaten diozu zeure buruari: "Irain egiten ari zara niri, adinekoei eta senideei". Beraz, txarto. (Eskumaldeako ordezkaria 2)*

Elkarrizketatuek, gainera, patronal eta kargu politikoen partetik jasotako mespretxu horrek joera sexista handia izan duela salatu dute, honelako adierazpenak egin dituztelarik:

*Nik zenbait unetan, ziurrenik denak bezala, erabat azpiratuta, gutxietsia, isilarazia sentitu dut nire burua. Ezin duzu irudikatu (...) Batzutan etxeratu eta esaten nuen: "Jainko maitea, nola liteke XXI. mendean horrelakorik gertatzea! Esaterako, botatzen ziguten zertarako irabazi nahi dugun gehiago, gurea bigarren soldata baita; badaukagula gizonarena; zertan gabiltzan protestan, pozik egon beharko omen genuke lana dugulako; "horregatik" ez dugula lortuko, hankarteari eutsiz... Rementeria jaunaren adierazpenak, sindikatuak atzetik mugituko bagintu bezala eta gu txotxongiloak bagina bezala... zer pentsatu eta egin jakingo ez bagenu bezala... (Ezkerraldeako ordezkaria 2)*

*Lankideek kontatu zigutenean barnean zerbait lehertu zitzaidan. Beraz, nirea bigarren soldata omen da, zergatik ari zara hainbeste eskatzen. Baina, nork esan dizu nirea bigarren soldata dela? Zuri zer axola dizu nire bizitzak! (...) Hemen nire lana eta ahalegina ari gara baloratzen, ez nire kontu edo besteren kontu bizi naizen; zu nor zara esateko senar bat behar dudala bizi ahal izateko? Matxista nazkagarria! (...) Edota hankarteari eustea esanez "hemendik aterako da igoera". Emakumeak garelako jokutzen duzu horrela? Gizon bati esango zenioke antzekorik? (Eskumaldeako ordezkaria 1)*

Elkarrizketatu dudak liberatu sindikalak negoziazio mahaian hartu du parte modu aktiboan, eta patronalarengatik datorren mespretxu misoginoa bizi duen lehenengo aldia ez dela izan aipatu du. Honekin batera, "Breadwinner" ereduak patronalaren iruditegian indartsu jarraitzen duela azalera du elkarrizketan:

*Beti eraso matxista eta sexistak dira. Ez da lehenengo hitzarmena. Esaten dizute zure soldata urria dela senarraren osagarria zarelako (...). Esaten dute ez dagoela gizonik sektore honetan soldata ez delako famili-buru batentzako*

*modukoa... Nire ustez "famili-buru" kontzeptua zaharkituta dago, hain sexista da... (Bilboko liberatua, 2)*

Jarrera hauek sarri grebalariengan gaizki sentitzea eragiten duten heinean, ahalduntzearen kontrako efektua ekar dezakete, baita aldi berean emakume izateagatik kolektiboak jasaten duen diskriminazio bikoitzaz jabetuara-zi ere bai:

*Halaxe da. Gizon bati ez diote horrelakorik esaten. %90 emakumeak gara. Enpresa batean %90 gizonezkoak direnean ez dute halako adar jotzerik eginen. Inoiz ez diot patronaleko inori entzun hankarteari heldu eta esaten "hemendik aterako da zuri ordaintzeko soldata", ez behintzat gizonezko bati; edota gizon bati esaten bere soldata emaztearena osatzeko dela, edota "sindikatuaren txotxongiloa" izatea. Egundo ez dut halakorik bizi izan! Gizonek beren enpresetan grebak egin dituztenean ez dut sekula halakorik entzun. Emakumea naizelako jasan behar al dut? Ni ez naiz inoren osagarria. Pentsamolde matxista eta mespretxuzkoa da, zeharo... Halako hitzak oso gogorak gertatzen zitzaizkidan. (Eskumaldeako ordezkaria 2)*

Hala ere, honelako gutxiespenari buelta eman izan diote sarri grebalariek, borrokarako indarrak areagotu dizkietelarik halako jarrera sexistek:

*(...) Baina horrek era berean indar gehiago eman digu; askoz jipoituagoa zara, edo bigarren mailako langilea, eta horrek indar gehiago ematen dizu esateko: ez gaituzte mendean hartuko... Ez baikaituzte ezertarako aintzat hartzen; zaintzaileak gara... eta nik betidanik esan izan dut: hau betidanik debalde egin izan duzue (...) eta "orain ordaintzen ari naiz, neska, gutxi bada ere... pozik". Nik uste dut horrek asaldata egin gaituela guztiok. Lana oso gogorra da, gero ez dezaten aintzat hartu. (Bilboko liberatua 2)*

Zentzu honetan, elkarrizketatuek diote beren sektorea feminizatua delako izan dela hain luzea bizi duten greba, 378 egunekoa, hain zuzen ere:

*Bai, noski, emakume izateak zerikusia du. Ez baitira gizonak bezala aintzat hartzen. (Bilboko afiliatua 1)*

*Gure greba garatzen ari ziren bitartean beste batzuk ere izan dira hemen eta han, baina gureak hor zirauen. Labe garaietakoa, gu greban geundela hasitako beste batzuk arin amaitu izan dira, baina gurea hor zegoen! (Ezkerraldeako ordezkaria 4)*

Greban zehar gainontzeko eragileengandik jasotako babesaren inguruan mintzatu dira ere elkarrizketatuak, babes horiek prozesuan zehar izandako garrantzia azpimarratuz:

*Gero, akanpadan (...) mundu guztia izan zen... antzerki taldeak, artistak, margolariak, idazleak, politikariak, ahaztezina izan zen. (Ezkerraldeako ordezkaria 2)*



Arriaga aurrean egindako akanpadaren adibidea elkarrizketa guztietan atera den oroitzapena izan da:

*Akanpada hartan jende asko hunkitu egin zen... jai giroko akanpada izan zen... kolektibo guztien parte hartzea eskatu genuen: idazleak, musikariak, artistak... eta erantzuna liluragarria izan zen (...) jendea hitz egitera irten eta hunkitu egin zen. Puntu hartara iritsita, ez dakit zenbat denbora generaman... ehun egun luze... Hain denbora luzea igarota ikustean jende asko bildu zela esaten duzu, "bueno!"... lortzea 278 egunetan gu ahaztuta ez geratzea... gatazka erdi ahaztuta ez egotea. Nik uste dut funtsezko lana izan dela sozia-  
lizatzea, hain ondo sozializatu izana. (Bilboko liberatua 2)*

Hala ere, mugimendu feministaren inguruan galdetzerakoan, erantzunak gazi-gozaok izan dira:

*Hasieran ez; gero, denbora igaro ahala nik uste dut ikusi zutela ez zela ohiko aldarrikapen laboral bat, baizik eta ideologia feminista nabarmena. Beraz, agian ez guk nahi izango genukeen bezala -gehiago bustiz- baina tira, une batzutan hor izan dira. Agian gehixeago inplikatu beharko ziren. (Ezkerraldeako ordezkaria 2)*

*Hitzarmen hau sinatu balitz urrian ordezkariak (...) ekainean edo uztailean, mugimendu feministak ez ziren egongo. Uda ostean hurbildu ziren. (Ezkerraldeako ordezkaria 1)*

ELAren izenean Bizkaiko Erresidentzietako liberatua denak, mugimendu feministaren babesa lortzeko grebalariak eurengana jo behar izan zutela aitortu du:

*Nik hasieran gaizki eraman nuen. Greban egun asko generaman eta mugimendu feminista ez zen inola ere hurbildu. Areago, nik parte hartu nuen Emakumeen Mundu Martxak Donostian egin zituen jardunaldi batzutan eta inplikazioa eskatu nuen. Beraz, ni izan nintzen haiengana jo zuena. Nik esan nien emakume langileak ginela, mugimendu feministak gurekin egon behar zuela (...), eta gai laboralak bete-betean emakumeei eragiten digula, eta hor egon behar zutela. Orduan nolabaiteko enpatia sortu zen; askok kritika gisa ulertu zuten, baina autokritika egiteko eta egia zela aitortzeko gai izan ziren. Hortik aurrera hurbildu egin ginen, feministak laguntzen eta etortzen hasi ziren. Feministen aldetik batzutan inplikazioa banakoa izan da, ez hainbeste kolektiboena. (...) Azkenean lortu dugu gehiago parte hartzea, baina lana latz eginda, e? (Bilboko liberatua 2)*

Zentzu honetan, mugimendu feminista sindikalismora gehiago hurbildu behar dela aldarrikatzen du liberatuak, feminismoak sarri darabilen diskurtso "elitista" kritikatu duelarik:

*Nire ustez feminismoa sindikalismoarengana hurbildu behar da. (...). Langileengana hurbildu, eliteko diskurtso hori albora utzi "patriarkatua" eta*

*zahar-etxeetako emakume askok ulertzen ez dituzten antzeko hitzak; ez dira horrekin identifikatzen, ezta hurbildu ere. Beraz, feminismoari nik eskatu diot: "jaitsi apur bat, zoaz enpresetara, hitz egin argi eta ikusiko duzu guztiok garelako feminista". (Bilboko liberatua 2)*

Beste alde batetik, grebalariek bat egiten dute zaharren egoitzetako seni-deek sortutako elkarteak prozesuan zehar izandako garrantzian, Babestu elkarteak, alegia. Esan beharra dago, gainera, elkarte hau greba honetan zehar sortu dela espreski:

*Babestu elkarteak gatazka honetatik sortu zen. Ez du inoiz sindikatuarekin loturarik izan. Babesa ematen hasi zitzaizkigun eta gure martxari jarraitzen zioten; lagundu egiten gintuzten. Guk lan-hitzarmena aldarrikatzen genuen, eta egoitzak nola kudeatzen diren agerian utzi; Babestuk, berriz, gure esku ez dagoena lortzeko helburua du, ratioak (...) Senideak ordaindu egiten du, eta nire ustez enpresei exijitzeko ahalmena du; nik uste dut horrekiko Babestuk eginkizun garrantzitsua duela. (Eskumaldeako ordezkaria 2)*

Egun ere, badirudi Babestu erresidentzietako grebalarien aliatu garrantzitsu izaten jarraitzen duela, eta jarraituko duela, batez ere ratioen aldaketarako borrokan:

*Gatazkak iraun duen artean lagundu gaituzte; Babestu nabarmendu behar dugu, uste dut denetan egon dela. Eta gaur ere lankidetzari eusten diogu. Ratioei dagokionez, bederen, beti elkar hartuta jokatuko dugu. (Bilboko liberatua 2)*

## **Emaitzak**

### *Edukitzea*

Erresidentzietako grebalariek erdietsi dituzten baldintza materialei dagokionez, honakoak izan dira lorpen nagusiak: 1592 orduko lanaldia, 140 euro baino gehiagoko soldata igoerak, gaixotasun edota istripuen aurrean soldataren %100 jasotzea, formakuntzarako orduak, 20 minutuko atsedenaldia, edota igandeetako zein gauetako txanden plusen igoera, besteak beste.

Hobekuntza hauen bidez, Bizkaiko Erresidentzietako grebalariek arlo publikoan lanean dabiltzan lankideen baldintzekin parekatzeko beste pausu bat eman dute, nahiz eta oraindik desorekak nabarmenak diren. Hala ere, jardunaldiari dagokionez, behintzat, parekidetasuna lortu egin dute:

*Arlo pribatu batean 1.592 orduko lanaldia lortzea historikoa da. Beti esan izan ziguten izatekotan ametsetan izango zela. Arlo publikoan kentzen ari dira...*

*eta halako batean sektore pribatuan lortu genuen, gehiengoa emakumeak izanik. 1.592 orduak beti izan dira arlo publikokoak. Urte gutxi barru iritsiko gara lanaldi horretara... eta gutxiago! Izan ere, prestakuntza ere hor sartuko baita, eta guztientzako 20 minutuko atsedena. Beraz, finean, kalitatea da, historikoa da. (Bilboko liberatua 2)*

Dena den, soldatei eta ratioei dagokienez arlo publikoan baldintza nabarmenki hobekiak dituztela aipatu du liberatu sindikalak:

*IFASen (soldata) ia bikoitza da, gutxiarik %40 gehiago. Jauzi handi bat egin dugu, baina oraindik... (...) Euren ratioa ere bikoitza da, baina bikoitza, aizu. Gure zahar-erretan goizean 8 egon daitezke, eta IFASen 16. (Bilboko liberatua 2)*

Hala ere, baldintza hauek hobetzeko borrokan jarraituko dutela azpimarratu egin dute.

#### *Jakitea eta egiten jakitea*

Zenbait elkarrizketaren iritziz, gatazka luze honek, tankera honetako borroka batek suposatzen duenaz kontziente izatea eragin die, alderdi on eta txarretaz, alegia. Modu berean, garaipen honen bitartez antolakuntzaren bidez lor daitekeenaz kontzienteago bilakatu dira ere bai:

*Honek ikusarazi dit antolakuntza onarekin lor daitekeela; baita zeintzu abantaila eta eragozpen sortzen diren. Nik ez nuen uste sektore honetan hainbeste eguneko greba aurrera aterako zenik. (...) Gutxieneko zerbitzuak areagotzea astindu bat izan zen. Niri ikusarazi dit borrokatu beharra dagoela, noski, baina kontuz gutxieneko zerbitzuekin, greba ezkatutzeko balio izan baitute. Abusu hutsa izan ziren. Horregatik kontzientzia harrarazi dit horrek; nik, inozo honek, uste nuen errazagoa izango zela. (...) Borroka hor dago eta gauzak ondo antolatuz gero lortzen dira, baina kostata. (Eskumaldeako ordezkaria 2)*

Zentzu honetan, zerbitzu minimoen gain, greban zehar izandako trabak mahai gainean jarri dituzte elkarrizketatuek, nahiz eta antolakuntza eta borrokaren bidez oztopoak gainditu dituztela aipatu.

Modu zehatzagoan, kontzientziario feministaz galdetzerakoan, grebalarik gehienek feminismoarekiko eboluzio bat egon dela diote. Elkarrizketatu gazteenak, esaterako, honela bizi izan du prozesua:

*Orain kontzientzia handiagoa dut (...). Ez nion horri erreparatu, baina seko feminista sentitzen naiz. Eremita askotan dagoen desberdintasuna ez dut normaltzat jotzen. Borroka hau ere ikusi da luzatu dela emakumeak ginelako; ez ziguten jaramonik egiten, eta horrek areagotu egiten du sentipena: Feminista naiz eta emakumeen eskubideen alde borrokatuko naiz, eurek bezalakoak baikara. (Bilboko afiliatua 1)*

Liberatu sindikalak, bere aldetik, honela bizi izan du kontzientzia feministaren hedatzea. Feminismoaren hedatze hau, gainera, grebalarietara soilik ez dela mugatu aipatu egin du:

*Lehenagotik ere baginenok... Pozez bizi izan dut: banintzen feminista lehenago, baina sentitu dut nire sektorea inoiz baino feministagoa bilakatu dela. Eta sekulako ilusioa eman dit nire sektorea, baita orain nire sindikatua ere, feminista gisa definitzea. (...) Izan ere, ELAk bere burua klase-sindikatu abertzale gisa definitzen zuen, eta orain feminista ere bai... Zahar-etxeetako grebatik aurrera. (Bilboko liberatua 2)*

### Nahi izatea

Norbere buruaren pertzepzioan grebaren ondorioz aldaketarik egon ote den galdetzerakoan, elkarrizketatuen artean nagusitu den erantzuna honakoa izan da: borrokarako motibazio eta indarra handitu egin direla. Ondorengo parte hartzaileak, adibidez, gazteagotan bitzitako beste gatazka batekin alderatuta, greba honek eragin diona azaldu du:

*Niretzat hala izan da, borrokan jarraitzeko nire asmoari; nik bizi izan bainuen 2003ko greba, baina orduan Aspaldikon hasi berria nintzen. Eta greba hura bizi izan nuen (barreak)... ez nekien. (...) Noski, eta 22 urte nituelako eta gurasoekin bizi nintzelako. "Hainbeste diru galtzen al dut? Bost axola..." Beste era batera bizi nuen (...). Greba hau benetan sufritu dut eta halere diot azkenean merezi izan duela. (Ezkerraldeako ordezkaria 3)*

Elkarrizketatu gazteenak, modu honetan bizi du bere autopertzepzioa greba egin eta gero:

*Bai, indartsuago sentitzen dut nire burua... ni indarberritu egin nau eta erakusten du gauzak lortzen direla; kostata, baina lortzen direla (...). Gainera, ez nuen inoiz grebarik egin, ezer ez. Beraz, hau dena berria zen niretzat, eta amari galdetzen nion: "Ama, zer deritzozu?". "Nahi duzuna egizu, heldua zara, ez?", esaten zidan. Eta azkenean indarberrituta nago. (Bilboko afiliatua 1)*

Beste honek, aldiz, jendartearen babesaren garrantzia azpimarratu du autopertzepzioaren eragile gisa:

*Baita jendartearen baloratuagoak ere; kalean egonda ezagutzen ez nuen jendea hurbiltzeak eta esateak "Aupa neskek, irabazi egingo duzue!" (Ezkerraldeako ordezkaria 4)*

Beste alde batetik, borrokarako beldurrak galdu edo gutxitu izana ere sarri aipatutako gaia izan da elkarrizketatuen artean, beste alde batetik antolaketak eta gatazkarako indarrak hazi egin diren bitartean grebalarien artean:

*Nik uste dut esnatu egin direla. Ez da euren pentsamoldea aldatu, baizik esnarazi egin dituzte, beldurra kendu... "Hau honela da, borrokatu egin behar naiz honen alde horrela pentsatzen dudalako eta hala jokatu behar dut". (Eskumaldeako ordezkaria 1)*

*Baita egunerokoan, zure lantokian ere. Nire ustez jende askok lehenago lantokian beldurra zuela esateko zerbait bidezkoa ez zela. Eta grebarekin... egoitza batzutan ez zen inoiz greba egin, edo oso langile gutxi egiten zuten, eta orain eragina handiagoa izan da, jarraipen zabalagoa, langile gehiagok egin du greba, ahaldundu egin dira, indartu... Eta zure egunerokoan, gero lantoki bakoitzean egin behar baita borroka; nik uste dut horretarako oso baliagarria izan dela, ziur nago. (Eskumaldeako ordezkaria 2)*

Maila kolektiboan ere, beldurrak galtzeak eta borroka konpartitzeak modu esanguratsuan eragin du talde sena indartzeko garaian. Elkarrizketatuek diote, prozesu honen ondorioz grebalarien arteko loturak eta euren arteko babesa asko indartu egin direla, norbere boterea besteekin bat egiterakoan biderkatu egin delarik. Honela diote elkarrizketatuek:

*Lotura bat sortu eta osatu da... Puff! Presta daitezela 2020rako... Izugarria baita; noski, nik Aspaldikoren kasua ezagutzen dut, baina uste dut orokorra izango dela. Kalean elkarrekin egon diren emakumeen arteko loturak oso garrantzitsuak dira, oso indartsuak. (Ezkerraldeako ordezkaria 1)*

*Elkar ezagutu dugu Bilboko ELAn egiten genituen bileretan; Bizkaia guztiko delegatuak elkartzten ginen, elkar ezagutu "begira hau, begira bestea"... Eta Ezkerraldean, gu denok Ezkerraldekoak baikara, gutxi gora behera batuta geunden; orain ezin gaituzte bereizi. (Ezkerraldeako ordezkaria 3)*

*Nik argi ikusi dut, esaterako, lehenago bakanduta geundela. Egoitza batean gertatzen zena han geratzen zela, eta orain jabetu naiz zer gertatzen den erresistentzia batean: "arazo hau izan dut". "Zerbait behar baduzu hor gaituzu! Zatoz, esan eta hara joango gara!" Ahizpatasuna, batasuna... osatu dugu; zerbait gertatuz gero badakit laguntza ematera etorriko direla. (Ezkerraldeako ordezkaria 2)*

*Badakit oraintxe nire egoitzan arazo bat badut talde batean mezua zabaldu eta biharamonean jende mordo bat bilduko dela ate aurrean. (Eskumaldeako ordezkaria 2)*

*Hori nire zentroan gertatu da jada. Uztailean kaleratzeak izan zirenean jende mordoa etorri zen babesa ematera. Horrek kristoren poza ematen du! Jende piloa zegoen, horrek min eman zien. Horrek guztiok batu egin gaitu; esaten duzu, jo, ezagutzen ez nuen jendea atzean dut. Pentsa ezazu, bi kaleratuak hunkituta negarrez zeuden. Babes horrek itzelezko indarra ematen du. (...) Niretzat hori oso positiboa da; hobeto ezagutu dugu elkar eta, tira, badago*

*adiskidetasuna ere, nahiz eta ez egunero elkartu.* (Eskumaldeako ordezkaria 1)

Ikus daitekenez, elkarrizketatuen testigantzek bat egiten dute talde sena indartu egin dela esatean, eta horrek borrokarako suposatzen duen babes eta bultzadan aurretik zegoen egoerarekin alderatuta, zeinetan lan zentru zein pertsonak modu isolatuagoan mugitzen ziren.

#### *Eragiteko gaitasuna*

Indibidualki, elkarrizketatuek diote grebalari askok beldurrak galdu dituztela, eta euren aldarrikapenak plazaratzeko gaitasuna areagotu egin dela:

*Nik uste dut batzuk lehenago beren eskubideak aldarrikatzeko beldurrez zeudela, ez zirela ausartzen nagusiaren atean jotzera.* (Eskumaldeako ordezkaria 2)

Elkarrizketatuek ere eragiteko gaitasunaren indartzeak kolektiboaren mugak gainditu, eta beste sektore feminizatu batzuetuara ere iritsi dela diote:

*Enpresa txiki askotako jendea ari da afiliatzen, eta esaten dute "grebara!" Emakumeak diharduten enpresak. Egunez egun ikusten duzu jendea hurbiltzen dela eta esaten dutela "zuek kapaz izan bazarete..." Ostia, eragina uste baino askoz handiagoa izan baita, e! (...) Emakume askori gogoa piztu diogu esateko: Ask! da adarra jotzeaz!* (Bilboko liberatua 2)

Behin greba amaituta, gainera, zenbait eragilerekin sareak sortu edota indartu egin dira, horrek suposatzen duen indar eta botere metatzearekin:

*Espainia guztitik gonbidatu gaituzte hitz egitera. Ni dagoeneko birritan izan naiz Bartzelonan, COSeK deituta; jende askoren aurrean hitz egin dut gatazkaz (...) Kellyekin ere izan gara (...), eta akanpadan izan ziren. Gero, lankideak (...) Madrilan, Segovian, Sorian, Kanarietan, Bartzelonan izan dira... Leku askotan izan gara gatazkaz mintzatzeko. Euskal Herrian beti medio feministetan hitz egiten dugu: aldiakariak, irati independenteak... Hemen mugimendu feminista da kolaboratzeko deitzen ari den bakarra (...). Institutuetatik ere deitu gaituzte: bi ikastetxetan 16 eta 17 urteko gazteei eman dizkiegu grebari buruzko hitzaldiak.* (Bilboko liberatua 2)

Indar hau, gainera, zabaltzen ari da egunez egun, eta ekitaldi eta deialdi ezberdinei erantzuna emateko ordezkari sindikalen artean 14 laguneko taldea sortu dute, zeinak errotazio sistemaren bidez ardurak banatzen dituzten.

---

## ONDORIOAK

Bizkaiko Erresidentzietako grebalarien bizipenak eta prozesu ezberdinak bildu ditugu, eta ahalduntze feminista prozesuak aztertzeaz gain, bestelako hainbat gai jorratu ahal izan ditugu era berean, hala nola sexuaren araberako lanaren banaketa, lan merkatu kapitalistaren eragina emakumeekiko edota sindikalismoaren egoera.

Ahalduntze feministari dagokion ikerketa atalari buruz, lehenik eta behin esan beharra dago ahalduntze prozesu bakoitza modu batekoa eta subjektiboa dela, eta ondorioz, haren analisi eta sistematizazioa ere moldatu beharra dagoela aztergai den kasu bakoitzera. Horregatik, nahiz eta analisi enpirikoak oinarri teoriko eta metodologiko jakin bat izan, adierazleak moldatu egin dira greba testuinguru duen ahalduntze prozesu honetarako. Hau kontuan izanda, hainbat ondorio azaleratu egin dira egindako ikerketa kualitatibo honen bitartez:

Abiapuntuan, nahiz eta grebalari bakoitzak maila pertsonalean egoera ezberdina izan baldintza materialei, giza baliabideei edota baliabide sozio-politikoei dagokienez, denek oinarri amankomunak elkarbanatu egin dituzte: sektore feminizatua osatzen dute, eta euren lana ez dago sozialki baloratu; beraz, parte hartzaileek elkarbanatu dituzten lan baldintzak kaxkarrak dira. Hasiara batean, lan zentro batzuk sindikalizatuagoak zeuden afiliazio edota ordezkari mailari dagokionez, eta beste batzuk gutxiago. Dena den, grebara atera diren behargin guztiak sindikalizatu egin dira azken batean.

Greban zehar baldintza materialei dagokienez, elkarrizketatuek bat egin dute ELA sindikatuak duen erresistentzia kuxaren garrantzia azpimarratzerakoan. Izan ere, 378 greba egun diru sarrerarik gabe irautea ezinezkotzat jo dute parte hartzaileek. Honetaz gain, sindikatuak greban zehar eskainitako beste laguntza materialak ere aipatu dituzte elkarrizketatuek: lokalak, material ezberdina, eta abar.

Giza baliabideei dagokienez, alderdi emozionalari eusteko kideen arteko sostengua ezinbestekoa izan dela ondorioztatu dezakegu testigantzetatik. Izan ere, momentu onak eta txarrak bizi izan dituzte hain denbora luzean, eta grebalarien arteko babesa eta euskarria oinarri-oinarritzkoa izan da. Honekin batera, eta sektore feminizatua izanik, greban zehar zaintza lanen kudeaketa ere zentralidadea izan duen gaia izan da elkarrizketetan. Modu honetan, grebalariek zailtasunak gainditze aldera sarri seme-alabeen mobilizazioetara joan behar izana plazaratu dute, eta familia edota

inguruko sare sozialaren laguntza ezinbestekoa izan dela ere azpimarratu egin dute, zaintzaile horien “eragile aktibo” izaera aldarrikatuz.

Baliabide soziopolitikoei dagokienez, grebalarien arteko sostenguz gain, kanpoko eragileen elkartasunaren garrantzia ere azpimarratu da elkarrizketetan, eta zentzu honetan gatazkaren baitan sortutako Babestu elkarte nabarmendu egin da, egoitzetako erabiltzaileen familien elkarte, alegia. Bizkaiko Erresidentzietako langileek, gainera, elkarlanean jarraitzen dute egun ere Babesturekin, batez ere ratioen kontuari dagokionez indarrak metatzen dituztelarik.

Kanpo euskarri eta babesei dagokionez, mugimendu feministaren inguruko parentesi bat ireki nahi nuke hemen. Gai honekiko elkarrizketatuek amankomunean izan duten sentimendua honakoa izan da: mugimendu feminista berandu iritsi dela, eta gatazkaren amaieran besterik ez dutela hurbilketa izan borrokarekiko. Zentzu honetan, mugimendu feministaren babesa lortzeko grebalarien partetik lanketa bat egon dela aipatu egin dute testiguen. Elkarrizketatu batek, honen inguruan hausnartuz, mugimendu feminista langileengana gehiago hurbildu egin beharko litza-tekeela plazaratu zuen, sarri “eliteko” diskurtso bat erabiliz ez delako zenbait kolektiborengana iristen.

Beste alde batetik, negoziazio kolektiboan zehar bizitako esperientziak ere plazaratu dituzte elkarrizketatuek. Batzuek modu zuzeneagoan hartu dute parte, negoziaketa mahaietan izan direlarik patronalarekin aurrez aurre. Oro har, esperientzia txar gisa definitu dute parte hartze zuzen hau, grebalariekiko mespretxua eta matxismoa nagusi izan baitira bilera haue-tan. Hala ere, Patronalaren erdeinu honek aurrera jarraitzeko indar bikoitza eman diela aipatu egin dute elkarrizketatu guztiek. Negoziaketa mahaietan ahalik eta grebalari gehien presentzia bermatzeko, ordezkarien artean errotazio sistema bat jarri dute martxan, honela parte hartzea bultzatuz. Dena den, grebalari guztiek ezin izan dute kontaktu zuzen hori izan Patronalarekin, baina hala ere negoziaketaren parte sentitu direla plazaratu egin dute. Izan ere, bilera edota gertakari oro baino lehen zein ondoren, asanbladak egin dituzte sindikatuan, pertsona oro informatua egon zedin, eta langileen iritzia jasotzeko asmoz.

Azkenik, 378 egun ostean, Bizkaiko Erresidentzietako Langileek akordioa sinatu egin zuten, eta greba amaitzea erabaki egin zuten asanblada bidez.

Elkarrizketatuak grebaren emaitzen inguruan mintzatu dira, eta ikerketa enpirikoaren bidez lau arlotan bildu egin dira, ahalduntze prozesuen lau

---



aspektuak, alegia: edukitzea, jakitea eta egiten jakitea, nahi izatea eta eragiteko gaitasuna.

*Edukitzea*-ri dagokionez, hobekuntza agerikoa da, maila indibiduallean zein kolektiboan: euren lan baldintzak hobetu dituzte, lan-jardunaldiaren aspektua, esaterako, arlo publikoaren parekoa izatera iritsi egin delarik.

*Jakitea eta egiten jakitea* aspektuari dagokionez, ondorioztatu dezakegu oro har borrokarekiko eta sindikalismoarekiko kontzientziazio maila igo egin dela, hauexek izan direlarik esan direnak: beldurra galdu egin dira, eta grebak suposatzen duenez –gauza onak eta txarrak– gehigo kontzientziatu egin dira parte hartzaileak. Aurrerago gatazka bat emango balitz, beraz, langileek esperientzia gehiago eta beldur gutxiago izango lukete zentzu honetan. Honetaz gain, greban zehar afiliazioak gora egin du, eta grebalari kopuruak goranzko joera izan du gatazka aurrera joan ahala. Honela, greba aurretik sindikalismoarekiko loturarik ez zuen jende asko batu egin da antolakuntzara, eta erakunde sindikal jakin batek eskaini ditzakeen tresnen eta horien erabilpenen jakitun bilakatu da, aurretik baino neurri handiago batean.

Beste alde batetik, kontzientziazio feministari dagokionez, hasiera batean bere burua feministatzat hartzen ez zuen grebalari askok, gatazka-aren amaieran feminismoarekin identifikatuak sentitzen dira, elkarrizketatuek plazaratu dutenaren arabera. Izan ere, Patronalaren ahotan entzundako irain sexistek, edota grebaren luzapen handia beste zenbait greba maskulinizaturekin alderatuta, grebalari asko emakume izateagatik pairatutako zapalkuntzaz kontzienteago izatea eragin du.

Hala ere, garratzitsua da hemen aipatzea, elkarrizketatuek ere hala azpimarratu baitute, gatazka azken batean kutsu feminista hartu duen arren, grebalariak ez zirela emakumeak zirelako edota kausa feministagatik kalera atera. Aitzitik, euren lan eta bizi baldintzak hobetzeko xedearekin abiatu dute borroka hau. Modu honetan, Bizkaiko Erresidentzietako grebalariek interes praktiko batzuk mugituta abiatu dute gatazka, denborekin interes praktiko horiek estrategikoei ere bidea ireki diotelarik. Azken interes hauek, estrategikoak, kontzientziazio feministari dagozkion interesak dira, eta grebak aurrera egin ahala protagonismoa hartuz joan dira, nahiz eta interes praktikoak greba guztian zehar borrokaren funtsa izan diren.

*Nahi izatea* aspektua ere landu da elkarrizketetan, greba ondorengo protagonisten motibazioa eta gogoia, alegia. Elkarrizketatu guzti guztiek, nahiz eta greba luzea eta neketsua izan den, hurrengo pausoak emateko

motibazioa badute. Testigantzen arabera, gatazkan lortutakoa emozionalki goranzko bultzada bat izan da, eta gehienek behar izanez gero prozesua errepikatuko luketeela adierazi egin dute.

Gogo eta motibazio honen gako nagusietako bat talde sena indartu izana da. Izan ere, lankide eta borrokakide arteko harremanak ezinbestekoak izan dira emozionalki grebari eusteko, eta horren ondorioz talde sena izugarri indartu da, grebalarien iritziz. Harreman berriak sortu egin dira, eta aurretik bazirenak indartu. Honela, gainera, aldarrikapen indibidualek kolektibizatzeke joera hartu dute, talde babesa eta laguntza areagotu egin direlarik.

Greba ondorengo *Eragiteko gaitasunari* dagokionez honakoa ondoriozta dezakegu: langileek orokorrean beldurrak galdu dituztenez gero, eta taldearen babesa eta indarra gehiago sentitzen dituztenez, euren eragiteko gaitasuna nabarmenki hazi egin dela. Elkarrizketatuek, zentzu honetan, lan zentruen adibidea jartzen dute, arazo bat izanez gero lantoki batean, gainontzeko zentruetako grebalaria taldea bertaratuko dela esaten baitute, greba aurretik gertatzen ez zen bezala. Zentzu honetan, beraz, esan genezake pertsonen eragiteko gaitasuna kolektiboaren bidez bikoiztu egin dela.

Beste alde batetik, garrantzitsua da ere aipatzea gatazka honek nolako eragina izan duen beste hainbat borroka eta kolektiboren baitan. Elkarrizketatuek dioten moduan, eredu honek indarra eman die beste zenbait langileri euren gatazka propioak abiatzeko. Honetaz gain, erakunde sindikalaren baitan eragindako aldaketa ere esanguratsua da zentzu honetan. Izan ere, liberatua dagoen elkarrizketatuak dioten moduan, greba aurretik ELA sindikatua ez zen feminista moduan definitzen. Aitzitik, gatazka ondoren bai.

Elkarrizketen analisiarekin jarraituz, bertatik ateratako mamia ahalduntze feministaren adierazleak interpretatzeaz haratago doala ikusi ahal izan dugu. Nahiz eta foku nagusia Bizkaiko Erresidentzien Borrokan zehar emandako greban eta bertan sortutako ahalduntze prozesuan jarri dugun, maila teorikoan landutako zenbait gairekin lotura zuzena aurkitu dugu.

Izan ere, ahalduntze prozesuek, pertsonen bizitza indibidualak zein kolektiboak zeharkatzen dituzte. Ondorioz, ezin ditugu lan merkatuak zein sindikalismoak protagonistengan sortu dituen eraginak analisitik kanpo utzi, faktore horiek greban parte hartu duten pertsonak eta kolektiboak oro har zeharkatu baitituzte bete betean.

---

---

Ildo guztian zehar presente egon den gaia (batzuetan esplizituki eta besteetan inplizituki) sexuaren araberako lanaren banaketa izan da, eta honekin batera “Breadwinner” eredu. Industrializazio garaian eredu hau indartu egin zen, emakumeen rol etxekoia areagotu egin zelarik era nabarmenean. Bada, elkarrizketetatik ondorioztatu ahal izan dugun moduan, eredu honek bizirik dirau egun ere, bereziki agerian geratu delarik patronalaren aldetik grebalariek jasotako diskurtsoa, “segundo sueldo” eta honelako adierazpideak erabili dituztelarik.

Argi geratu da Bizkaiko Erresidentzien adibidearen bitartez, sektore feminizatuei sozialki ematen zaien balorazioa, balioespen honek beharginen lan eta bizi baldintzetan era nabarmenean eragiten duelarik. Honen adibide dira sektorean jasotzen diren soldatak. Zentzu honetan, urteetako borrokaren bidez hobekuntzak lortu diren arren, besteak beste Estatu mailako hitzarmenetik lurralde mailakora salto egin delarik, bizitzarako ezinbestekoa den lan honen soldatak oraindik ere kaxkarrak izaten jarraitzen dute. Honi, gainera, EAEn azken urteetan geroz eta hedatua dagoen azpikontratazioaren ereduaren eraginak gehitu behar dizkiogu. Izan ere, kontzertatuta dauden egoitzetako langileek, arlo publikoan dihardutenek baino %40 inguru gutxiagoko soldata jasotzen dute.

Sindikalismoari dagokionez ere, maila teorikoan aztertutakoa maila empirikoan isladaturik geratu egin da hein handi batean. Izan ere, testigantzetatik atera ahal izan dugu egoera prekarioenean dauden pertsonen zailtasun gehigarria greba egiteko, besteak beste aldi baterako kontratuak dituzten langileak, edota gazteak. Hauek, gainera, nahiz eta mugagabeki kontratatuak egon, sarri ez dira identifikatuak sentitzen sindikalgintzaren sinbologia tradizionalarekin, eta erakundeekiko urruntasuna ohikoa izan ohi da, nahiz eta salbuespenak badiren. Dena den, borroka honen bidez ikusi da nola ereduaren bitartez, sarri iruditegi sinbolikoarekin identifikatuta sentitzen ez diren kolektiboek antolakuntza eta borrokarako saltoa egin duten. Gatazka hau feminizatu izanik, eta garaipena lortu delarik, beste zenbait emakume langile kolektibo mobilizatzeraren eraman ditu borroka honek. Elkarrizketatuek zioten moduan, Bizkaiko Erresidentzien gatazka lantoki askotan emakumeak altxatzea eta hauteskunde sindikalak, mobilizazioak edota grebak aurrera eramatea ekarri du, greba aurretik ohiko zena baino neurri nabarmenki handiagoan. Altxamendu hauek, gainera, gehienetan kutsu feminista izaten dute, aurretik hain maiz gertatzen ez zen bezala. Horren adibide dugu Gipuzkoako Administrazioako Garbitzaileek egindako mosaiko feminista, edota berrikiago, Gipuzkoako Erre-

sidentzietako Langileek hasi berri dituzten mobilizazioetan oihukatzen ari diren “gora emakumeon borroka!” moduko aldarrikapenak. Guzti honek, Bizkaiko Erresidentzietako Borrokak izandako oihartzuna eta eragina agerian uzten du, lan munduari, sindikalgintzari eta feminismoari dagokionez.

## BIBLIOGRAFIA

- Alcañiz, Mercedes eta Monteiro, Rosa (2016ko abendua). She-Austerity. Precariedad y desigualdad laboral de las mujeres en el sur de Europa. *Convergencia, Revista de Ciencias Sociales*, 72, 39-68.
- Amurrio, Mila eta Larrinaga, Ane, (2017). IV. Movimientos sociales, participación y dominación. In Jone Martínez Palacios (koord.) *Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias* (145-172). Bartzelona: Icaria.
- Arbaiza, Mercedes (2011). Economía en tiempos de posmetafísica: una perspectiva feminista. In Pilar Pérez Fuentes (Ed.) *Subjetividad, cultura material y género* (239-270). Bartzelona: Icaria.
- Arbaiza, Mercedes (2014). Obreras, amas de casa, mujeres liberadas. Trabajo, género e identidad obrera en España. In Mary Nash (Ed.) *Masculinidades y Feminidades. Arquetipo y prácticas de género* (129-158). Madrid: Alianza.
- Arrillaga, Isabel; Olaizola, Begoña eta Rezola, Leire (2017). Zifrak 2016. *Emakumeak eta gizonak Euskadin*. Emakunde.
- Charlier, Sophie eta Caubergs, Lisette (Koord.), Género e Indicadores ikerketa taldea (2007). *El proceso de empoderamiento de las mujeres. Guía metodológica*. Brusela: Comisión de Mujeres y Desarrollo.
- De Miguel, Ana (2005). La articulación del feminismo y el socialismo. El conflicto clase género. In Amorós, Celia eta De Miguel, Ana (Ed.), *Teoría feminista: de la ilustración a la globalización* (295-332). 1. Liburukia. Madrid: Minerva.
- Dufour-Poirier, Melanie (2017ko abendua). La crisis del sindicalismo. In *Globalizazioa, lana eta botere sindikala. Resumen de las intervenciones de un seminario internacional*. Gai Monografiak 54. Manu Robles Arangiz Institutua.
- ELAko Batzorde Eragilea (2016ko apirilak 4), *Estatalizazioak kalte larria eragiten die lan-baldintzei. Negoziazio kolektiborik gabe ez dago dago autogobernurik*. ELA Euskal Sindikatua.
- Fundación 1º de Mayo (2012ko otsaila). *Las reformas laborales en España y su repercusión en materia de contratación y empleo. 52 reformas desde la aprobación del Estatuto de los Trabajadores en 1980*. Fundación 1º de Mayo.
- Gabinete de Estudios Confederal - Gabinete Jurídico Confederal (2010eko uztaila-abuztua). *La reforma laboral. Real Decreto-Ley 10/2010*. Boletín informativo nº129. Secretariado Permanente - Comité Federal de CGT.
- Hernández, José Manuel (2004ko iraila). *Crisis del derecho del trabajo y la globalización*. Dokumentuak 6. Manu Robles-Arangiz Institutua.
- Kortabarria, German (2015). *Gauzak horrela (ere) izan ziren. ELA 1976-2006*. Iruñea: Pamiela.

- LAB Sindikatua (2012ko otsailak 20), *2012ko Lan Erreformari buruzko txostena*. Hemendik eskuratua: <http://www.lab.eus/eu/greba-orokorra/201-greba-orokorra/553-2012ko-lan-erreformari-buruzko-txostena-?format=pdf>
- Lagarde y de los Rios, Marcela (2012). *El feminismo en mi vida. Hitos, claves y topías*. Mexico DF: Instituto de las mujeres del Distrito Federal.
- León, Magdalena (1997). *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Bogota: TM Editores, U.N. Facultad de Ciencias Humanas.
- Murguialday, Clara (2013). *Reflexiones feministas sobre el empoderamiento de las mujeres*. Colección Cooperació. Bartzelona: Cooperació.
- Piris, Silvia (2015). *¿Emancipación sin feminismo? Transitar de la marginalidad a la centralidad del feminismo en las organizaciones mixtas*. Biblioteca Básica de Formación 7, Manu Robles-Arangiz Institutua.
- Precarias a la deriva (2004). *A la deriva por los circuitos de la precariedad femenina*. Utiles 1. Madril: Traficantes de sueños.
- Sales, Tomeu (2016ko udaberria). *Contra la precariedad, con la precariedad; cuidados y feminismo*. Oxímora Revista Internacional de Ética y Política, 8, 53-62. RCUB Revistes Científiques de la Universitat de Barcelona.
- Scott, Joan (1993). La mujer trabajadora en el s.XIX. In Georges Duby eta Michelle Perrot (Ed.). *Historia de las mujeres. El siglo XIX (427-261)*. Madril: Taurus.
- Torns, Teresa eta Recio, Carolina (2017). *Emakumeak eta sindikalismoa: aurrera-pausoak eta erronkak lan eta gizarte arloko aldaketen aurrean*. Dokumentuak 36, Manu Robles-Arangiz Institutua.

### **Txostenak**

- Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak (1997), Leioa.
- Euskadiko II. Topaketa Feministak (1984), Leioa.
- Euskadiko III. Ihardunaldi Feminista (1994), Leioa.
-